



60 EXFILNA IRUN22



EXFILNA 2022

60. FILATELIA ERAKUSKETA NAZIONALAREN ARAUDIA

FILATELIAKO ESPAINIAKO TXAPELKETA

1. KAPITULUA. ANTOLAKETA, LEKUA, DATA, BABESLETTZA ETA ARAUDIAK.

1. artikulua

60. Filatelia Erakusketa Nazionaleko, EXFILNA 2022, Espainiako Filatelia Txapelketa, **Irunen izango da, 2022ko irailaren 21etik 25era**. Elkarte Filatelikoen Espainiako Federazioak eta Bidasoko Filatelia eta Numismatika Elkarteak antolatu dute, Estatuko Correos y Telégrafos sozietatearen eta Irungo Udalaren babesarekin; laguntzaileak, berriz, Real Casa de la Moneda - Fábrica Nacional de Moneta y Timbre, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hondarribiko Udala, Zaisa.

Euskal Selluzale Elkarteen Baterakundeak lagundu egingo du EXFILNA ondo joan dadin.

Filatelia-erakusketa Irunen egingo da, FICOBA Gipuzkoako erakustazokako 2. aretoan.

EXFILNA 2022k Frantziako bildumen parte-hartzea izango du herrialde gonbidatu gisa, eta Filateliako Europako Federazioaren (FEPA) onarpena jasoko du.

Elkarte Filatelikoen Espainiako Federazioak eta Bidasoko Filatelia eta Numismatika Elkarteak Batzorde Antolatzailea eratu dute, EXFILNA'2022 prestatu, gauzatu eta behar bezala funtzionatzeaz arduratuko dena.

Erakusketa honetarako federazioaren ordezkaria:

Francisco Javier Castro Manrique jn.

javiercastromanrique@telefonica.net

2. artikulua

Araudi berezi honek ez ezik, Filateliako Nazioarteko Federazioaren Erregelamendu Orokorrak (FIPEko GREX) eta FESOFiren Erakusketei buruzko Erregelamendu Orokorrak zuzenduko dute erakusketa.

II. KAPITULUA. ONARTZEKO BALDINTZAK.

3. artikulua

Erakusketa lehiakorra izango da, nazio-mailakoa, eta FESOFiko elkarte bateko kide den eta urte horretako federazio-txartela duen edozein bildumagilek parte hartu ahal izango du. Nahitaez, txartel horren fotokopia erantsi beharko zaio izena emateko orriari. Erakusketari bakoitzak eskubidea izango du pertsona bakoitzeko **bi** bilduma edo familia bakoitzeko **hiru** bilduma aurkezteko. Baldintza horretatik salbuetsita geratuko dira, baldin eta Koadro bat eta Literatura filatelikoaren K. multzokoa badira.

Halaber, Frantziako Federazioetako bildumagileek parte hartu ahal izango dute EXFILNA'2022 erakusketan, FESOFik berariaz gonbidatuta.

Bildumak Estatuko hizkuntza ofizialean nahiz autonomia-erkidegoetako hizkuntza koofizialeko edozeinetan aurkez daitezke, baita ingelesez ere, Planaren orrialdea gaztelaniaz duela.

4. artikulua

EXFILNA'2022an parte hartu nahi duten bildumek Erakusketa Nazional batean parte hartzeko aukera ematen duen palmares bat izan beharko dute. Erakusketa Nazional batean lehen aldiz parte hartzen dutenek edo aurreko edizioetan horretarako behar adinako puntuaziorik lortu ez dutenek lurralde-erakusketa bateko palmaresa bidali beharko dute, inskripzio-orriarekin batera, edo dagokion Lurralde Federazioko komisarioak sinatutako ziurtagiria. Erakusketariak berea duen materiala bakarrik erakutsi beharko du, eta ezin izango du zigilu faltsurik, manipulaturik edo FIPEk onartzen ez duen beste edozein zigilurik izan, non eta ez den berariaz adierazten horrelakoak erakusten diren orrian.

5. artikulua

Erakusketan onartzen diren bildumak mota hauetan taldekatuko dira:

I. KLASEA. OFIZIALA. Bilduma hauek sartzen dira mota honetan: Espainiako Posta, Posta Museoa, zigilu-Inprimatzaileak, epaimahaiko kideak edo batzorde antolatzaileak gonbidatutako bildumak.

II. KLASEA. MAISU-MAILAKOA EDO NAGUSIA. Bilduma batek kategoria honetan parte hartuko badu, erakusketa honen aurreko hamar urte naturaletan kategoria nazionaleko erakusketetan urrezko hiru domina edo FIP kategoriako erakusketetan urrezko domina eta urrezko domina handia jasoak izan behar ditu, eta haien artean bakarrik lehiatuko dira. Zenbaketa horretarako, urteko domina bat baino ez da hartuko kontuan. Mota hau lehiatzekoa izan dadin, gutxienez hiruk eman behar dute izena.

III. KLASEA. LEHIAKETA. Gainerako parte-hartzaileentzako da, eta honako hauek dira multzoak eta azpimultzoak:

A MULTZOA. FILATELIA TRADIZIONALA

B MULTZOA. POSTA HISTORIA

B.1. 1875 arte (Posta Batasun Unibertsala sortu aurretik)

B.2. 1875etik 1945era bitartekoak

B.3. 1945ez geroztikoak

C MULTZOA. GAIKAKO FILATELIA

D MULTZOA. AEROFILATELIA

E MULTZOA. ASTROFILATELIA

F MULTZOA. OSOKO POSTA

G MULTZOA. MAXIMOFILIA

H MULTZOA. FILATELIA FISKALA

I MULTZOA. FILATELIA IREKIA

J MULTZOA. FILATELIA MODERNOA

K MULTZOA. LITERATURA FILATELIKOAK

K.1. Liburuak, eskuliburuak eta azterlanak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratuak

K.2. Katalogoak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratuak

K.3. Aldizkako argitalpenak eta kazetaritza-artikuluak, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratuak.

L MULTZOA. POSTA TXARTELAK (Klase esperimentalak)

IV. KLASEA. ERAKUSKETA

BESTE BILDUMAZALETASUN BATZUETAKO bildumek parte hartzeko (filatelikoak izan edo ez). Bilduma alde aurretik hitzartu beharko da izendatutako komisarioarekin:

Mercedes García Álvarez and.

e-maila: merche.garciaalvarez@yahoo.com

III. KAPITULUA. INSKRIPZIOAK, INSKRIPZIO ESKUBIDEAK ETA KOADROAK ESLEITZEA.

6. artikulua

EXFILNA'2022 erakusketan parte hartu nahi duten bildumagileek behin-behineko inskripzio-orria edo orriak bidali beharko dituzte, bilduma bakoitzeko bat, aurkezten diren Filatelia Elkarteko lurralde-komisarioaren bidez, eta federazio-txartelaren bidez egiaztatu beharko dute, eta **ez da onartuko bide horretatik ez datorren inskripziorik.**

Literatura Filatelikoaren K. multzoko partaidetzek nahitaez adierazi beharko dituzte argitalpenaren urtea, liburuen kasuan ISBN eta azalaren fotokopia.

IV. KLASEKO bildumek edukiaren laburpena, erakusketa modua, metro bateko modulutarako espazio beharrak eta erakusgai jarri beharreko laginaren argazkiren bat aurkeztu beharko dute.

Honako komisario hauek izendatu dituzte EXFILNA 2022 honetarako:

GALIZIA

M. Elisa Abad Suárez and.

e-maila: marilaabad@gmail.com

GAZTELA ETA LEON - ASTURIAS

Francisco Javier Castro Manrique jn.

e-maila: javiercastromanrique@telefonica.net

KANARIAR UHARTEAK:

Carlos Rodríguez Gómez jn.

CAR_RO_GO@hotmail.com

ARAGOI - ERRIOXA:

José Antonio Arruego Sanz jn.

e-maila: joseantonioarruego@gmail.com

KATALUNIA – VALENTZIA – BALEARRAK:

Joan Isern López jn.

e-maila: isern.j.l@gmail.com

ZENTROA:

Jacinto Sardinero Franco jn.

e-maila: jacinto.sardinero@gmail.com

EXTREMADURA – ANDALUZIA:

Rafael Acuña Castillo jn.

e-maila: rafaelacunafesofi@gmail.com

EUSKADI - KANTABRIA:

Juan Manuel Cerrato García jn.

e-maila: jcerrato@euskalnet.net

BESTE BILDUMAZALETASUN BATZUK

Mercedes García Álvarez and.

e-maila: merche.garciaalvarez@yahoo.com

FRANTZIAKO FEDERAZIOA

Pascal Brandy jn.

e-maila: pascal.bandry@orange.fr

Komisario Nagusiari bidali beharko zaizkio inskripzioak, **2022ko maiatzaren 1a** baino lehen, **ordezkatzeko duen Filatelia Elkarteari dagokion Lurralde Komisarioaren bidez**, eta ez dira onartuko haiek abalatzeko ez dituztenak.

Juan Manuel Cerrato García jn.
665 posta-kutxa
01070 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. 945 260 512 - 667 210 779
e-maila: jcerrato@euskalnet.net

7. artikulua

Onarpen Batzordeak **2022ko maiatzaren 25a baino lehen** erabakiko du bildumak onartzea edo ez onartzea, eta ondoren erakusketariari jakinaraziko dio.

Erakusketariak honako hauek erantsiko ditu nahitaz **2022ko uztailaren 1a baino lehen**.

- Inskribatu nahi duen bildumaren aurkezpen-orriaren edo orrien fotokopia.
- Bilduma, PDF formatuan eskaneatuta (artxibo bakarra, bilduma osoa jasoz).
- Bildumaren izenburua eta jabearen izena dituen irudia, EXFILNA 2022rako aurreikusitako web-orrian esteka gisa agertuko dena (irudi hori bidaltzen ez bada, haren lehenengo orria agertuko da bildumaren "aurkezpen" gisa).

Bilduma aurreko ERAKUSKETA NAZIONALETAN aurkeztu badu, azken aurkezpenaz geroztik egindako aldaketak jasotzen dituen txostena aurkeztea gomendatzen da, eta, hala badagokio, ea Adituen Batzordeak emandako jarraibideei kasu egin zaien ere. Halakorik aurkezten ez bada, esan nahiko du ez dela aldaketarik egin aurreko erakusketaz geroztik.

Dokumentazio hori honako honi bidaliko beharko zaio:

Juan Manuel Cerrato García jn.
665 posta-kutxa
01070 Vitoria-Gasteiz (Araba)
e-maila: jcerrato@euskalnet.net

8. artikulua

Inskripzio-eskubideak **hamalau eurokoak** izango dira betetzen den 16 orriko koadro bakoitzeko, koadro bateko bildumen kasuan izan ezik; horiek **hogeita bost euro** ordainduko dute. Literatura Filatelikoaren K multzoko bildumek **hogeita bost euro** ordainduko dituzte partaidetza-eskubideengatik.

Lehen aldiz hiru edo bost koadro erakusten dituzten bildumek 10 euro ordainduko dute 16 orriko koadro bakoitzeko.

IV. KLASEKO bildumak inskripzio-eskubideetatik salbuetsita egongo dira.

9. artikulua

Vermeil Grande (kategoria nazionala) adinako edo gehiagoko palmaresak dituzten bilduma guztiak zortzi (8) koadroekin erakutsiko dira nahitaez. Salbuespen izango dira duela gutxi lortzeagatik FESOFIren indarreko araudiak onartzen dituen bi urteko gabealdia dutenak. Palmaresa txikiagoa dutenek bat (1), hiru (3) edo bost (5) koadroekin erakutsi ahal izango dituzte. Koadro bateko (1) eta hiru (3) koadroko bildumak hiru urtez baino ezin izango dira erakutsi.

IV. KAPITULUA. EPAIMAHAIA

10. artikulua

EXFILNA'2022 lehiaketako kalifikazio-epaimahaia FESOFIko epaimahaikideek osatuko dute, FESOFIren indarreko araudien arabera izendatuta. Epaimahaiko kideek aurrez aurre, on line eta taldeka lan egingo dute, eta haien artean presidentea, presidenteordea eta idazkaria izendatuko dira. Idazkariari egokituko zaio Epaimahaiaren Akta prestatzea.

11. artikulua

Bildumak ebaluatzeko epaimahaiak erabiliko dituen irizpideak FIPEk eta FESOFIk finkatutakoak izango dira.

Dominak esleitzeko, kategoria nazionalako baremoa erabiliko da.

Koadro 1eko eta Filatelia irekiko bildumei, FIParen araudiari jarraiki, ez zaie dominarik emango.

Puntuak akreditatzeko diploma eta oroitzapen-domina emango zaie bilduma guztiei.

Posta-txartelen L MULTZORAKO, Atenasen 2015eko azaroan FEPAk horrelako bildumetarako onetsi zuen araudia erabiliko da.

12. artikulua

Epaimahaiak multzo edo azpimultzo batetik bestera aldatu ahal izango du bilduma bat, egoki baderitza, aurkeztutako materialaren edo bildumaren egituraren arabera. Erabaki hori dagokion komisarioari eta FESOFIko ordezkariari jakinaraziko die, eta epaimahaiaren aktan agertuko dira aldaketa horiek.

13. artikulua

Epaimahaiaren erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta haien erabakia apelaezina izango da. Berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa izango du presidenteak.

V. KAPITULUA. SARIAK

14. artikulua

Epaimahaiak emandako kalifikazioen arabera, sari hauek emango dira:

- **Ohorezko Sari Nagusia**, II. klaseko (Maisu-mailakoa edo Nagusia) bilduma onenarentzat.
- **Erakusketako Sari Nagusia**, III. klasean (Lehiaketa) puntuaziorik handiena lortzen duen edo epaimahaiak bozkatzeko duen bildumarentzat.
- **"José María Ortuondo" saria**, B multzoan (Postaren Historia), puntuaziorik onena lortzen duen bildumari.
- **"Antonio Castellano" saria**, C multzoan (Gaiak) puntu gehien lortzen duen bildumari.
- **Sari bereziak**, Batzorde Antolatzaileak Epaimahaiaren eskura jarriak.
- **Akreditazio-dominak eta -diplomak**, Epaimahaiak emandako puntuazioen arabera.
- **Parte-hartzearen diploma.**

15. artikulua

Epaimahaiak ezartzen dituen jakinaraziko dira kalifikazioak jendaurrean.

VI. KAPITULUA

BILDUMAK MUNTATZEA DESMUNTATZEA ETA ITZULTZEA

16. artikulua

Onartzen diren bildumak **Lurralde Komisarioen bidez** bidaliko dira.

Bilduma erakusketariak berak garraiatu eta muntatu behar badu, alde aurretik Batzorde Antolatzailearekin adostu beharko du, eta batzordeak esango du zein egunetan eta ordutan muntatu.

Beste modu batera bidaltzeko, betiere inskribatzen den zonaldeko Komisarioari jakinarazi eta hark baimendu ondoren, idatziz, honako honekin **jarri beharko da harremanetan**, nora eta noiz bidali adieraz diezaien:

Juan Manuel Cerrato García jn.
665 posta-kutxa
01070 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. 945260512- Mugikorra: 667 210 779
e-maila: jcerrato@euskalnet.net

17. artikulua

Bildumen orriak plastiko-zorro gardenen barruan bidali behar dira, eta zorro horiek behar bezala babesteko erresistentzia eduki beharko dute, eta korrelatiboki zenbakituta egongo dira aurrealdeko izkinetako batean. Ohiko muntaketa ez duten bildumek, eskema sinplifikatu bat eduki beharko dute, behar bezala erakusteko.

18. artikulua

Literatura Filatelikoaren K multzoko bildumak ale bakar batekin bidali beharko zaizkio, **2022ko irailaren 1a** baino lehen, honako honi:

Carlos Hernández Encinar jn.

Legia karrika 5, 1.B

20302 Irun

Gipuzkoa

Literaturako bildumak ez dira itzuliko; Filatelia Elkartearen Espainiako Federazioaren esku geratuko dira. Legez hartatzen hartzen diren lanak eta argitalpenak onartuko dira soilik.

19. artikulua

Batzorde Antolatzailea eta dagokion komisarioa arduratuko dira bildumak muntatzeaz eta desmuntatzeaz, bildumagilea bertan dela, aldeaz aurretik hala eskatzen badu.

Segurtasun-arrazoiak direla eta, EXFILNA'2022 inauguratu ondoren, ezingo da erakusketako material hori kendu, ez eta pieza berriak jarri ere.

Adituen Batzordeak edo Epaimahaiak eskatuta, Erakusketako Zuzendaritzak behar diren bildumen orriak jaso ahal izango ditu, bertako kideek aztertu ahal izan ditzaten. Dena dela, horretarako, dagokion lurralde-komisarioa eta Fesofiko ordezkaria bertan egon beharko dute.

Ezingo da bildumarik kendu, erakusketa amaitu arte, eta antolatzaileek esandako orduan egin beharko da: irailaren 25eko 14:00etan, erakusketa orokorrean desmuntatzeko.

20. artikulua

EXFILNA'2022ko Batzorde Antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik Erakusketaren edo Antolakundearen egoitzan gerta daitezkeen kalte eta/edo galera oso edo partzialetan, ezta parte hartzen duten bildumak manipulatzeko edo bidaltzeko gertatuta ere. Hala ere, behar diren neurriak hartuko dira, adierazitako materiala behar bezala zaintzeko. Bestalde, parte-hartzaileek aseguruak sinatu ahal izango dituzte, egoki baderitzote.

21. artikulua

Bilduma guztiak, Literaturakoak izan ezik, itzuliko zaizkie bidaltzaileei, ekarri zituzten komisarioen bidez, jabeek ekarritako bildumak izan ezik. Horiei ordua jakinaraziko zaie desmuntatzeko: irailaren 25eko 15:00etatik aurrera.

Erakusketariak bilduma beste sistema baten bidez itzul diezaioten nahi badu, aldeaz aurretik eta idatziz adierazi beharko dio bere komisarioari, eta komisarioak Batzorde Antolatzaileari emango dio idazki hori, eta batzordeak itzuliko du bilduma, **erakuslearen beraren kontura**.

VII. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

22. artikulua

EXFILNA'2022ko Batzorde Antolatzaileak eskubidea du araudi hau aldatzeko. Aldatzen badu, berehala jakinaraziko die erakusketariei zer aldaketak egin diren.

23. artikulua

Araudi honetan aurreikusten ez diren gorabeherak EXFILNA'2022ko Batzorde Antolatzaileak ebatziko ditu azken batean.

24. artikulua

Baldin eta desadostasuna edo gatazka aldean artean adiskidetasunez konpondu ezin bada, Madrilgo Justizia Auzitegiek izango dute ebazteko eskumena. Erakusketariak espresuki uko egiten dio bere lurralde-foruari.

25. artikulua

Erakusketari orok, inskripzio-orrian sinatuz (osorik bete beharko da orria), onartu egiten du araudi partikular hau.